



XXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: AZKEN ERABAKIA



XXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute: Estanislao Amutxastegi alkatea izan da mahaiburu, eta Petri Romero zinegotzia haren ordezko; Patxi Baztarrika izan da idazkaritzaz arduratu dena; eta mahaikideak, berriz, Alazne Aiestaran, Allande Boutin, Odile Kruzeta, Joxe Rojas eta Arantxa Urretabizkaia izan dira. Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu eta ezagutzera ematea adostu du ahobatez.

AZKEN ERABAKIA

1.- Euskaraz egindako kazetaritza suspertzea eta kazetaritza hori bikaintasunaren eta etengabeko berrikuntzaren bide zabalean sendo kokatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburu nagusia. Epaimahaiaren egitekoa, berriz, kazetariak urtebetean eginiko lana aipatutako irizpide nagusi horien betaurrekoekin behatzea eta baloratzea.

2.- Eskerrak eman beharrean da Epaimahaia, asko baitira ekimen honen garabidean alde edo moldez parte hartzen dutenak. Komunikazio-ikasketak egiten diren unibertsitateetako irakasleak, hainbat hedabidetako zuzendariak, kazetari berria atalera beren burua aurkeztu duten kazetari gazteak, eta, jakina, Epaimahaiaren lana luzatu eta zaildu duten kazetari guztiak. Izan ere, zorionez, asko baitira, ez bat edo bi, euskarri ezberdinetan maila goreneko kazetaritza euskaraz egiten dutenak, eta ez da erraza izan atal bakoitzean bat bakarra aukeratzea. Eskerrik asko, beraz, aipatutako guztiei.

3.- Aurrera baino lehen, ordea, esker onaren seinale eta euskal irakurle guztiek duten zor bat kitatu nahian-edo, aipamen bat egin nahi du Epaimahaiak: Mikel Atxaga jaunaren aipamena. 2009ko irailean hil zen. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazi zuen 1998an, Deian argitaratu zituen artikuluetatik. Rikardo Arregi Sari honen talaiatik gizalegezkoa eta nahitaezkoa da euskarazko kazetaritzari biziraupena eta sendotasuna bermatzen bidegile eta aitzindari izan zen Mikel Atxagaren

ekarpena aitortzea eta eskertzea. Balioko al du horretarako aipamen honek!

4.- Hona, orain, epaimahaiaren erabakiak:

4.1. Kazetari berria ataleko saria

Kazetaritza munduan lehen urratsak egiten ari direnak gogoan hartuta ematen den saria: 27 urte edo gutxiago dituztenek bakarrik dute lanak aurkeztu eta saria jasotzeko aukera.

Kazetaritzaren jardunak eta komunikazioaren munduak oso bereak dituen esparruen artean bada bat betikotzat eman dezakeguna: literatur kritika. Horretan dihardu iraunkortasunez aurtengo irabazleak. Sariaren jabe izateko dituen merezimendu ugarien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditu Epaimahaiak:

- Kritikaren jeneroa menderatzen du, idazkera bizia du eta irakurlearen interesa, piztu ez ezik, azkeneraino mantentzen du. Badaki probokatzaile izaten ere. Argudio-emailea da, ez bairik gabe, eta kritikak, gogorrek direnean ere, argudioetan oinarritzen ditu.
- Literatur jenero guztietan murgiltzen da, narratiba eta olerkian ez ezik, baita saiakeran ere. Itzulpenei buruzko kritikak egiterakoan, berriz, jatorrizko bertsiok hartzen ditu kontuan.

Sariduna: Beñat Sarasola jauna

Saritutako lana: 2009ko maiatzaren 17tik 2010eko apirilaren 25era bitartean *Berrian* argitaratu dituen literatur kritikak.

Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

4.2. Epaimahaiaren Sari Berezia

Epaimahaiak sari hau erabakitzeko aurtengoan kontuan hartu duen irizpidea izan da, egunerokotasunari hertsiki loturiko kazetaritza espezializatuaren adibide ona izatea.

Aipatutako irizpide horren erakusgarri da bete betean aurtengo saritutako lana. Hori esateko bada arrazoi ugari, besteak beste honakook:

- Gaurkotasan nabarmena duen gai bati buruzko ikerketa lana da, hainbat arlotako profesionali beren jarduerarako oso erabilgarria izango zaiona eta publiko zabalarentzako ere interes ukalezina duena.
- Iturri asko landu ondorengo lana da; oso ongi dokumentatua, beraz.
- Liburu formatoan eginga dago, baina kazetaritza da, bete-betean izan ere, bai hizkerari, bai estiloari dagokionez. Testu bizia eta irakurterraza, behin hasita gero alboan utzi ezin diren erreportajeen modukoa.

- Ekarpen nabarmena egiten dio saritutako lanak kazetaritzari oro har, eta ekarpen hori euskaraz egina izateak euskara eta euskarazko kazetaritza indartzen ditu, ezbairik gabe. Iraganean ez dugu ezagutzen gisa honetako kazetaritza-lanik: ea etorkizuneko errotak tankera honetako ale gehiago ematen dituen!

Sariduna: Imanol Murua Uria jauna.

Saritutako lana: *Loiolako hegiak* izenburua duen liburua.

Saria: 4.000 euro eta diploma.

4.3. Sari Nagusia

Argi bezain zehatz jasotzen dira Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren XXII edizioko oinarrietan Sari Nagusia erabakitzerakoan Epaimahaiak aintzat hartu behar dituen irizpideak: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Aipatutako irizpideon hesi barrutik hartu du erabakia Epaimahaiak, eta toki-aldizkari batek irabazi du Sari Nagusia. Ondorengoak dira saridunaren merezimenduen artean epaimahaikideek azpimarratu nahi dituztenak:

- Papereko aldizkaria da, hilabetekaria, eta iraganean, neurri batean bederen, egunerokotasunari lotzen zitzaion. Hilabetekari izaten jarraitzen du, baina euskarri ezberdinetaz baliatuz garai berrietara eta irakurleen apetetara egokitzen asmatu du. Papereko aldizkariak sakoneko aldaketak egin ditu, egunerokotasuna alboratu du, erreportaje landuen gune bihurtu da; baina ez du baztertu egunerokotasuna, beste modu batean lantzeari ekin baizik: halatan, eguneroko informazio eta jakingarriei web gunean egiten die lekua.
- Berrikuntza ipar-orratz hartuta, paperean argitaraturiko idazlan asko bideo eta argazki bidez osatzen eta aberasten dituzte web gunean.
- Berrikuntza eta kalitatea uztarri berean doaz: horretaz jabetzeko aski da idazketa zainduari, infografiari, maketazioari eta erreportaje-moten ugaritasunari erreparatzea. Erakargarria zaio irakurleari, edukia ez ezik baita papera eta kolorearen trataera bera ere. Hitz bitan esanda, produktu betea.
- Iturriak bikain bilatu eta baliatzen ditu, tokikoak ez ezik kanpokoak ere.
- Toki aldizkaria izanik, tokikoa eta globala egoki uztartzen asmatu dute, bertakokerietan erori gabe baina bertakoa den produktua eginez.

- Toki aldizkaria goi mailako aldizkari bihurtu da, toki aldizkari izateari utzi gabe. Eredugarria da, ez bairik gabe, toki-aldizkari entzat, aipatu ditugun ikuspegi guztietatik eredugarri.

Sariduna: *Baleike* aldizkaria, Zumaiako Baleike Kultur Elkarteak argitaratzen duen hilabetekaria.

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

4.4. Ohorezko Aipamena

Horra zer dioten hitzez hitz Sariaren oinarriek: “euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko Aipamena egiteko aukera aitortzen zaio epaimahaiari”. Ezin esan lan neketsua izan denik, erraza baizik, oinarriek ezarritako hesi-mugetan aurtengo Ohorezko Aipamena erabakitzea.

Gerorako utzi gabe, jada esanda utz dezagun: ARGIA izango da XXII Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko Ohorezko Aipamena jasoko duena.

Arrazoi asko metatu ditu Epaimahaiak ARGIA aldizkaria Ohorezko Aipamenaren jabe egitearen alde, eta ondorengoak azpimarratzea erabaki du:

- 90 urte bete ditu iaz, 2009an. ARGIA edo/eta bere garaian bere arbaso ZERUKO ARGIA izan da, edo are hobeto esanda garaian garaiko ZERUKO ARGIAk izan dira, euskal kazetaritzaren kabi iraunkorra, kabi gazia batzuetan eta gozoa beste batzuetan, euskal kulturaren eta euskalgintzaren gazi-gezen erakusleho beti, eta euskal hiztunei informazio askotarikoa euskaraz eskura jarri diena, 90 urtez. Argia, eta bere garaian Zeruko Argia, izan da euskarazko kazetaritzari ia mende batez bizirik eutsi dion hedabide bakarra.
- 1919tik 2009ra, 90 urte luze eta oparo, asko eta asko zailtasunez beteak. Xabier Letona zuzendari duen gaurko ARGIAk, 1919an du abiapuntua. Eta abiapuntuaz hitz egiterakoan, edo geroagoko urteez jarduterakoan, nahitaezkoa da Kaputxinoak, Damaso Intza, Agustin Ezeiza edo Nemesio Etxaniz aipatzea, nahitaezkoa den bezala Rikardo Arregi aipatzea, hark ere Zeruko Argiaren eskutik gizarteratu baitzuen bere kazetaritza-lan oparoaren zatirik handiena. Ezinbestekoa da, halaber, Miren Jone Azurza eta bere ondoko Mikel Atxaga ere gogora ekartzea, beste askoren artean eta beste askoren ordezkari gisa. Euskal prentsan iritzia nagusi zenean, informazioari atea irekitzen asmatu zuten, baita, gorabehera istilutsuen erdian, euskara biziberritzeko hil edo bizikoa zen euskara batuari kabia egiten ere.
- Iraunkorra izan da, etengabe jakin izan duelako aldatzen, inguruabar, premia eta garai berrietara egokitzeko aldatzen, hain zuzen ere.
- Historikoa eta aurrerazalea izan da, eta da, bere baitara kuku eginez gero, euskal kazetaritzaren historiaren oso zati handia ezagutu litekeelako. Bere bilakaerari erreparatzea aski

da horretarako, bere alderdi on eta txar guztiakin. Eta aurrerazalea izan da, eta da, ahalgina egin duelako ataka zailetatik atereaz gisa guztietako berrikuntzetara egokitzen: hala pentsamendu eta joera berrikuntzetara, nola kazetaritzaren hizkera eta eduki berrietara ere. Behin eta berriro aitzindari izan da, eta hala izaten jarraitzen du, berrikuntza horietan, esaterako Internet sareko ekoizpenetara jauzi eginez nabarmen azaldu zuen gisan.

· Harrobi izan da, euskal kazetaritzaren harrobi oparoa urte askoan.

Euskarazko kazetaritzan bidegile eta biderakusle izan den ARGIA zaharrari, Zeruko Argia aspaldikoari, astekari zaharberrituari, asteroko aldizkari berri eta berritua den ARGIAri, beraz, Ohorezko Aipamena.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiek sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamarreko uztailaren hiruan.

Estanislao Amutxastegi
(ordezkoa: Petri Romero)

Alazne Aiestaran

Allande Boutin

Odile Kruzeta

Joxe Rojas

Arantxa Urretabizkaia

Patxi Baztarrika